

noaua

Igande honetan,
Tipi-Tapa

Lehen diskoa
plazaratu du
Desegin taldeak

Datorren astean
hasiko da
NOAUA! Kulturaldia



Haimar Zubeldia

“Gustatu zait 2015eko
Tourraren ibilbidea”

ARDI-BELTZ BERRIA

Sartu, probatu eta itzuli

3 KILOKO HAMBURGESA ERRALDOIA!

4 PERTSOKETZATI OSTIRALERO ENKARGUZI!

GURE ERRONKA:
AUSARTU BAKARRIK JATERA ETA BUKATZEN BADUZU DOAN ATERAKO ZAIZU!

Puntapax 12 Bajo - Usurbil 943 37 73 30 @ardi_beltz

FUNERARIA GONZALEZ EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

·EDOZEIN ASEGURU IZANDA (OCASO, SANTALUCIA...)
HERIOTZA GERTATZEN BADA, DEITU ZUZENEAN GURE BULEGORA 24H,
(edo aseguruari gure zerbitzuak eskatu).

ASEGURUAREKIN IZAPIDE GUZTIETAZ ARDURATZEN GARA ZUZENEAN,
(MOMENTU LATZ HAUETAN ASEGURUAREN POLIZA ZENBAKIA EDO ERREZIBOIA EDO HORRELAKORIK EZ DUGU BEHAR, ASEGURUAREKIN ZUZENEAN IZAPIDEAK EGITEN DITUGU)

943 36 21 63 (24H)

·BEILATOKI GUZTIAK: USURBIL, ERREKALDE... ·ERRAUSKETAK
·Asegururik EZ duten familientzat Usurbilgo beilatokia DOAN (gure eskutik)

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Lehenengo 6 erosleentzako, garaje bikoitza banakako prezioan!

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

12 ETXEBIZITZA INGURUNE PAREGABEAN Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Albiste iruditzen

Igandean hasiko da Tipi-Tapa, sari potoloagoekin

Tipi-Tapa "gosez" zaretenok, gutxi falta zaitzue pintxo bereziak berriz dastatzen hasiteko. Igande honetan, azaroaren 2an, gerturatu, Txapelkun, Artzabal, Bordatxo, Txirristra, Xarma, Aitzaga eta Txiribogara eta gozatu edaritegiotako sukaldeetan landutako mokaduez. Patata osagai nagusi duten pintxo bereziak dastatu ahalko dira, edariarekin batera (urteko ardoa, txakolina, sagardoa, zuritosa edo ura) 2 euroren truke; patata krux krux espeziekin, piperr gorri eta arrautzatxoa; patata eta hirugihar budina, patata entsalada, ganbaz beteriko patatak, patatak ondo kremarekin...

Afarien zozketa

Mokadutxo erakargarriak zalantzarik gabe. Baina adi, izango duzue eta, igande honetan tipi-tapa ibiltzeko arrazoi gehiago ere. Hurbilago Elkartetik bideraturiko egitasmoa indarberrituta dator. Taberna atarietan ekimena iragartzeko baliatu ohi dituzten karletean edo tabernarien kamisetetan ikusi ahalko duzue, irudi berriekin. Eta sari potoloagoekin. Orain arte bezala, Hurbilago elkarteko establezimenduetan xahutzeko 150



Txapelkun, Artzabal, Bordatxo, Txirristra, Xarma, Aitzaga eta Txiribogara egingo da Tipi-Tapa.

euroko erosketa balea zozketatuko da hiler, lehen igandeetan. Denboraldi berri honetan gainera, zozketa antolatzen duen tabernak bi lagunentzako otordua oparitu du. Erosketa balearen lehen zozketa, igande honetan, 15:00etan Aitzagan. Bi lagunentzako zozketatuko den otordua ere honenbestez Aitzagan.

Txartela zazpi zigiluekin osatu

Sariok irabazi nahi badituzue, ez ahaztu; Tipi-Tapa txartela, zazpi tabernetako zigiluekin osatu eta tabernetan jarrita izango dituzten kaxetan utzi beharra dago. Igande honetako zozketa Aitzaga tabernan izango da, eguerdikio 15:00etan.

Zorte on eta on egin!

Laburrean

Solasaldi literarioa Sutegin

Pako Aristik gidaturiko mahai ingurua, ostegun honetan, 19:00etatik aurrera Sutegi udal liburutegian. Oraingoan, Garbiñe Ubedaren "Hobe isilik" nobela hartuko dute hizpide. Mahai ingurura parte hartzera animatzen direnek, liburutegiko harreara-gunean jakinarazi dezatela aurrez.

1952koen kinto bazkaria

Duela 62 urte jaiotako usurbildarren bazkaria azaroaren 30ean, 14:30etan Patri jatetxean. Menua 35 euro.

Izen emateko deitu 943 361 380 telefono zenbakira, azaroaren 19a asteazkena baino lehen.

Tren-bus ordutegiak

Udaletxean, Kiroldegian, Saizarren, Eroski Cityn, Aginagako Arrate tabernan, Zubietako Alaman-degi tabernan eta NOAUA!ren egoitzan eskura ditzakezue NOAUA!k argitara eman dituzten tren-bus ordutegi gehiago. Web orrian, www.noaua.com helbidean, PDFn eskura daiteke.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea, 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkartea@noaua.com // www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Arantxa Zulaika, publizitatea@noaua.com

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzio@noaua.com:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa:

Olatz Rezola,

Arantxa Zulaika.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbiet, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldua,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etzabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Arna-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada:

2.800 ale.

Lege-Gordailua:

SS-668-96

ISSN:

1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.




Usurbilgo Udala



Euskal presoak

Euskal Herra!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Nerea Zinkunegi

“Ke-bola”

Pasa den astean izan zen, lankide batek aipatu zidan nola norbaitek ébolaren inguruko mezuren bat bidali zion eta gaiarekin interesik baldin banuen bidaliko zidala. Telebistan, irrastian, oro har prentsa osoan, inguruan... beste konturik ez eta ébolaren inguruko bideoa azaldu zen “recibidos”en.

–“Ufff!! Hogei minututik gorakoa da!!”

–“Tarte bat hartu eta ikusi” esan zidan lankideak.

Ondoren kontatzera noana bideoan entzundakoa besterik ez da, beraz, inork ikusi nahi badu eta nire hitzak irakurtzeaz libratu, hona hemen helbidea:

https://www.youtube.com/watch?v=czBaB_

XE72c

Play, hirurogei urte inguruko gizon bat agertzen da pantailan, plano amerikarrean, lastozko kapela du buruan eta patxadaz hitz egiten du kameraren aurrean (ez din aurreneko aldia, pentsatu dinat nire artean).

Josep Pamies du izena, ortuzaina da, barazki ekologikoak ekoizten ditu, nonbait, Balauger-en, Lleidan.

Irudiak abuztuan grabatutakoak dira eta kontatzen du nola duela 3-4 hilabete, apirila maiatza aldera alegia, Ginea Konakryn kooperatzaile lanak egiten dituen lagun batek aipatu zion herrialde hartan “brote epidemiko” bat azaldu zela, horrela, ezerezetik, magiak sortu izan balu bezala. Baina kontatzen du baita ere, lagun

honek Afrikako herrialdeetan kuranderoek, betiko herriko medikuek, ezagutzen dituzten zenbait sendabelar erabiliz bere inguruan gaixotutakorik ez hiltzea lortu zuela, harrapazank!! Artemisia Annua, kloro dioxidoa eta Garcinia Kola bezalako landareak aipatzen ditu, merkeak, norberak etxean ereiteko modukoak...en fin!!

Gizonak zintzotasunez hitz egiten duela dirudi, esaten duen horren inguruan jantzia dagoela adierazten du, ikerketak, txostenak... aipatzen ditu. Momentu batean OMS (Munduko Osasun Erakunde) genozidatatzat izendatzen du eta Gurutze Gorria, Mugarik gabeko Sendagileak (Médicos sin Fronteras) edo UNICEF bezalako erakundeak ere

genozidio honetan laguntzaile direla esaten du. Guzti honen atzetik farmazia industriak eta hauen interesak daudela esaten du, eta zergatik ez sinetsi? Nork ez du behin baino gehiagotan entzun mundua ez dagoela agintari politikoen eskuetan, baizik eta farmazia industriaren eskuetan? Zer da egia? Zer gezurra?

Aukerarik baduzu tartetxo bat hartu eta bideoa ikusteak merezi du.

Aurreko Noaia! alean Haritz Gorritik bukaeran galdera bat utzi zuen airean Afrikako zenbait herrialdeetan gertatzen denaren inguruan “axola al digu ba?”.

Gure zilborretik haratago gertatzen dena ikusi ere ez dugu nahi egin, erosoago bizi daiteke horrela.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | **Nerea Zinkunegi** | Luis Aranalde | Maialen Unanue | Idoia Torregerai | Joxe Piñas

1973an jaiotakoen egun handia

Hitzordurako aurrez prestatu zituzten zapiekin ageri da ondoko argazkiko koadri-la. 1973an jaiotako herritar taldea duzue. Aurreko larunbatean ospatu zuten euren eguna, Atxega jatetxean antolatu zuten bazkari baten bueltan. Eurek ateratakoa da, NOAUA!ra bidali duten argazkia.



Atxega jatetxean batu ziren aurreko larunbatean.

Pintxo-potea, Santuenean ere bai

Pintxo-potearen ohitura nonahi hedatzen ari da. Ostegunetan Kaxkoko tabernetan ospatzen da, eta aurrerantzean, ostiraletan Santuenean, 19:00etatik aurrera, Tragoxka tabernan eta zaharren egoitzan. “Animatu!”, luzatzen dute gonbita Santuenetik.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: azaroak 7. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 3.

Bi hilabete daude, 4G teknologiak eragindako aldaketetara egokitzeko

Sintonizatu al dituzue telebista kateak? Arazorik izan badizue, teknikariarekin harremanetan jarri. Antena instalakuntzan edozein moldaketa egiteko bi hilabeteko tartea duzue orain.

Herritar guztiek ez dute instalakuntzotan lanik egin beharrik izango. Usurbilgo Udaletik ohartarazi dutenez batzuek bai ordea, 3 etxebizitza baino gehiago dituzten eraikinetako bizilagunek. Kasuotan, bizilagunen komunitateak "Estatuko SETSI Idazkaritzan erregistratutako instalatzailearekin (antenista) jarri beharko dira harremanetan, kanal berriak hartzeko lanetarako".

Moldaketa lanok egin behar dituzuenok adi, gerora diru-laguntzak eskatzeko aukera izango duzue eta. Horretarako ordea, ondo gorde dokumentazio hau: "Instalazio Buletina gorde beharko dute, fakturaren kopiarekin (eta egindako ordainketaren banku-laburpenaren kopia-rekin) batera".

Itzalaldia urtarrila hasieran

Automatikoki sintonizatu badituzue telebista kateak, ohartuko zineten telebista kate bakoitza bi kate ezberdinetan



Moldaketak egin behar dituztenek diru-laguntzak eskatzeko aukera izango dute.

ikusi dezakezuela. Hala izango da urte amaierara arte. Orain arteko frekuentzian eta frekuentzia berrietan ikusi ahal izango dituzte telebista kate guztiak. Urtarrila hasieran, ordutik aurrera 4G teknologiarentzat izango diren frekuentzia zaharrak itzaliko dituzte. Eta telebista frekuentzia berrian baino ezinago da ikusi. "60 eta 69. kanalen arteko LTD kanalen emisio guztiak bertan behera geratu behar dira, eta frekuentzia

horiek libre utzi, komunikazio mugikorraren eta 4G zerbitzuen erabilerarako", jakinarazi dute Usurbilgo Udaletik.

Informazio gehiagorako

■ Gipuzkoako Lurralde Elkarteko Telekomunikazioetako Instalatzailea:

Aditegi 943 423 922

■ televisiondigital.es

■ 954 307 796 - 901 201 004


Ekintzailera sustatzeko diru-laguntzak

Ekintzaileak enpresa-idea bat garatzen laguntzeko, 13 diru-laguntza eskaintzen dituzte guztira, Buruntzaldeko udalek; 8 ideia berrientzat, eta beste 5 jarduera berrientzat.

Honakoa da diru-laguntzaren helburua: "Ekintzaile izateko potentziala duten pertsonen 2014an emango zaizkien laguntzak arautzeko oinarriak ezartzea, tokiko ekintzailera-proiektuen esparruan enpresa-idea bat sortzen, aztertzen eta egituratzen arduraldi eksklusiboan jarduteko".

Guztira, 320.000 euroko diru-laguntzak eskaintzen dituzte. 200.000 euro 18-25 urte arteko ekintzaileentzat; 120.000 euro 25 urtetik gorakoentzat.

Deialdiotan parte hartzeko baldintzak



Enpresa-idea bat garatzeko dirulaguntzak eskaintzen dituzte Buruntzaldeko udalek.

betetzen dituztenek, eskabideak Andoaingo Urigain-etxean (La Salle etorbidetza, 6) aurkeztu behar dituzte.

Informazio gehiagorako, Usurbilgo Udalaren ataria: usurbil.net

Euskara ikasteko dirulaguntzak

Euskara ikasteko matrikulazioa zabalik dagoen honetan, Udal Euskara Sailak gogorarazi nahi du Udaletik diru-laguntza sendoak ematen zaizkiela euskara ikasleei. 2013/2014 ikasturtean adibidez, 41 usurbildarrek jaso zuten diru-laguntza eta 14.130 euro banatu ziren guztira.

Diru-laguntza eskuratu ahal izateko baldintzak hauek izaten dira:

-Ikastaroak irauten duen denboraren %80a Usurbilen erroldatua egotea.

-Gutxienez, ikastaro osoan zehar, % 80ko asistentzia izatea.

-Gutxieneko aprobetxamendua gainditzea.

Informazio gehiago eskuratzeko Po-txoenean edo bestela 943 371999 telefono zenbakira deitu.

Desegin taldeak lehen diskoa plazaratu du “Espero baino hobea izan da emaitza”

Kalean da Deseginen berriena. Eskuragarri duzue, Beñat, Ekhi, Joxe Mari, Aitor eta Iñakiren estreinako lana. Musika joera ezberdinen bilduma, taldeak urteotan eman duen onena. Gaurkotasuneko hainbat gai hizpide dituzten zortzi abesti guztira. Laster, aurkezpen kontzertua izango dute. Horretan dabilta, ezohikoa izatea nahi duten hitzordua prestatzen. Eta kanta berriak sortzen.

Emaitzarekin gustura?

Desegin. Espero baino emaitza hobea izan da, oso gustura gaude. Taldea sortu genuenetik zazpi bat urte badira. Badira bi urte lanen bat grabatu nahi genuela. Zerbait xumea egin nahi genuen. Baina denborarik ez, kostatako lana izan da.

Taldeak urte batzuetako ibilbidea jorratu ostean eman zenuen diskoa grabatzeko pausoa?

Asmoa aspalditik genuen, baina kantak pixkanaka eta kostata sortzen joan ginen. Kontzertuak zirela eta, abestien zerrenda bat prestatu eta horiekin entseatzen genuen. 2012ko neguan ordea, azken kontzertua eskaini eta grabazioarako entseguei heltzea erabaki genuen. Kantak hobetzen eta lantzen, berri batzuk sortzen hasi ginen. Disko bat ateratzeko ilusioa izan eta aurrera egin genuen.

Barruko lan horretatik ze kanta atera dira?

Diska honetan duela lau urteko edo duela bi hilabeteko abesti bat aurki dezakezu. Kanta batetik bestera mundu bat dago. Musika mota ezberdinen nahasketa bat da, ez dugu eta musika joera finkaturik. Talde kide bakoitzak sentitzen duena



Martxel Arkarazorekin grabatu dute lehen diskoa.

ateratzen du. Hartara, kanta guztiei gure ukitua eman diegu. 8 abestien letretan denetarik dago; gizarteko krisi egoera honen, alferrikakoak diren politikarien hitz potoloen, poliziaren, gizartean dugun ardi izaera horren inguruko letrak, baladatxo bat...

Grabazio prozesua, esperientzia berria zuentzat.

Grabazioa 2013ko abendu bukaeran, gabonetan hasi ginen. Urtarrilean bertan bukatu genuen. Grabazio estudioira iritsi eta mundu berri batekin topo egin genuen. Esperientzia berria izan da, baina errepikatzen modukoa. Presioa izan genuen, baina aldi berean Martxel Arkarazok asko lagundu zigun. Animuak ematen beti, ondoan zegoen, bisitan joan zitzaizkigun lagunak bezala. Berari eta Kakiri ere eskerrak eman, materiala berak utzi baitzigun. Alde horretatik ere kalitatea asko hobetzen da. Grabazio egunak ere oso gogorak izan ziren guretzat. Jontxu zendu zenean izan zen.

DESEGIN

“Grabazio egunak ere oso gogorak izan ziren guretzat. Jontxu zendu zenean izan zen.

Sentimendu mugimendu handia zegoen egun haietan eta hori ere kaleratu dugun lan berrian islatzen da”

Sentimendu mugimendu handia zegoen egun haietan eta hori ere kaleratu dugun lan berrian islatzen da.

Diskoa non dago eskuragarri?

Irratin dago momentuz. Jendea gugana ere etorri izan da eskatzera, beraz gerturatu beldurrik gabe. Gaztetxean ere kontzertuak daudenean salgai izango dira. Eskuz esku saltzen dugu oraingoz. Gastuei aurre egin nahi diegu. Baina diskoak urritzen joan ahala, abestiak sarean doan entzungai jartzeko asmoa dugu.

Beste bide batzuk bilatu dituzue

zuen lana plazaratzeko?

Diskak saltzea zaila ikusten genuenez, musika taldeon arteko elkartrukea bultzatu dugu. Hartara, guk geure lana plazaratu eta aldi berean, beste taldeak ezagutzeko aukera dugu. Guk geuk egitea, gure baliabideekin ahal duguna egitea, musika hala ulertzen dugu. Musika tresna bat da, gure pentsaera, sentitzen duguna adierazteko. Talde txikiak elkar animatu eta laguntzen gara. Diskak trukatzeko ditugu, diskak saltzeko dagoen zailtasun eta ohitura faltarekin.

Lan berria eskuragarri

Oraingoz, Irrati tabernan lortu dezakezue Deseginen estreinako lana. Bestela taldekideei eskatu:

- Ahotsa: Beñat Irazusta.
- Kitarrak: Aitor Pagola eta Ekhi Arrieta.
- Baxua: Joxe Mari Zubimendi.
- Bateria: Iñaki Irazusta.
- Grabazioa: 2014ko urtarrila, Andoingo Garate estudioa.
- Diseinua: Ibai Arrieta.

“Ikasgai polita izan da, talde bezala trinkotzeko”

Beste Desegin bat zarete esperientzia honen ostean?

Desegin. Entseguetan formalizatu garela esan liteke. Orain geure burua entzuten dugu. Lehen, entsegu saioetan ondo egiten genuela iruditzen zitzaigun. Alde horretatik, gure burua entzun eta gero, ideia gehiago izan, eta entsegu eta zuzenekoan nabari da produktua entzun dugula. Landuagoa dugu. Aparte abestiok entzuten ditugunez, gero erraztasun handiagoa dugu gogoratzeko nola egiten genituen gauzak.

Disko hau talde barruko lanerako erreferentzia da beraz?

Bai noski. Behar genuen erreferentzia bat. Kantak bagenekien nola ziren, baina ez genekien bakoitzak nola jotzen zuen. Ikasgai polita izan da talde bezala trinkotzeko. Entzute horrek segurtasuna ematen du beste zertan ari den eta musikak beste indar bat hartzen du. Asmoa orain, Gaztetxeetan ditugun lagunekin hartuemanetan jarri eta ahalik eta kontzertu gehien ateratzea da.

Noiz entzungo zaituztegu zuzenean?

Aginagako San Praixkuetan eta Kilometroak jaialdi egunaren amaieran, Orioko gaztetxean jo genuen. Baina aurrera begira ia zerbait gehiago ateratzen den. Egia esan, ez dugu diskaren aurkezpen ofizialik egin. Zerbait berezia egin nahi dugu, ezohikoa. Herrian bertan izango da, baina oraindik



Aurkezpen ekitaldirik ez dute egin oraindik baina jada kalean da diskoa. Argazkia: Ibai Arrieta.

DESEGIN

“Kontzertuak eten genituen diska hau prestatzeko. Orain, disko hau dugunez, kontzertuekin segitzera goaz. Entseguetan bestalde, kanta berri gehiago sortzen gabilta”

zehazteke dugu.

Ze ibilbide egin nahi zenukete lan honekin?

Diska honekin kontzertuak eskaintzen segi nahi dugu. Kontzertuen katean sartu nahi dugu. Gure erritmoan segi. Kontzertuak eten genituen diska hau prestatzeko. Orain,

disko hau dugunez, kontzertuekin segitzera goaz. Entseguetan bestalde, kanta berri gehiago sortzen gabilta.

Gustukoen duzuen hitzorduen artean, Santixabeletako Bertsio Gaua egongo da. Ekimen arrakatsua?

Bertsio gaua polita da. Berez taldeetan parte hartzen dugun kideoz aparte, musikaz dakien jende asko dago herrian.

Gustatzen zaigu beraiek ere parte hartzea. Beraientzat ere aukera bat da, eszenatoki batean jendaurrean jotzea zer den eta giro horrek zer eragiten duen ezagutzeko, musikarekin jolasteko.

Azkenean beste hainbat talde osatzeko aukera sortu liteke.

“Talde berri gazteak gogotsu datoz”

Herri aberatsa dugu musika kontuetan?

Desegin. Gazteak ere indarrarekin datoz. Bertsio Gaua ere horren erantzule handia da. Azkenean ekimen oso parte hartzailea da. Adin guztietako jendea ikusten da eta musika mota guztiak ukitzen dira. Bertsio gauak beste taldeetako partaideekin jotzeko aukera ematen du.

Ze mugimendu Haranen?

Mugimendu polita dago. Talde berri gazteak gogotsu datoz. Pozgarria da, errelebo hori egotea. Zerbaiten emaitza da, taldeen artean elkar animatze, laguntze eta bultzada bat bada.

 **TAXI 24h**
ORAIN 8 PLAZA!
677 37 34 66] Joxe
943 36 21 78] Etxabe

 Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

 **Pinturas Ion**
KANPOALDEKO FATXADAK ETA BARNEALDEAK (PISUAK, LOKALAK...) ENPRESETAKO MANTENIMENDUAK
690 99 05 58
ionf81@hotmail.com

 **Josue Igeltseritza**
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Mosaiko erraldoirako izena eman behar da, Gure Esku Dago taldekoen mahaian

Kataluniako galdeketa-
ren bezperatan eta Es-
koziako erreferenduma
pasata, gu ere erabakitze-
ko eskubidea noizbait egikaritzeko la-
nean ari garela adierazteko, mo-
saiko erraldoia antolatu du Gure
Esku Dago, azaroaren 8an,
11:00-13:00 artean, Donostiako
Zurriola hondartzan. Euskaldu-
non erabakitze eskubidearen al-
deko ekimen berri honetan par-
te hartu nahi duzuenok, aurrez
eman behar da izena.

Izen ematerakoan 5 euro
ordaindu beharko dira. 5 euro
horiekin, ekimenean erabili-
ko den material gastuei aurre
egin nahi zaie. Halere, anto-
lakuntzatik ohartarazi dute-
nez, “esan gabe doa, inork 5
euro horiek ordaindu ezingo
balitu, ezingo dela hori parte
hartzeko muga bat izan”.

Txartela lortu behar

Adi, mosaiko erraldoian par-
te hartzeko mekanismoari.
Gure Esku Dago taldeak jar-
riko dituen mahaian izena
ematen duenak, trukean txar-
tel bat jasoko du. Txartel hori
ondo gorde eta azaroaren 8an



Ekainaren 8rako bezalaxe, azaroaren 8ko mosaikorako ere izena eman beharra dago.

Zurriolako hondartzara era-
man. Hiriburuko hondartzan,
txartela erakutsita mosaiko
erraldoian parte hartzeko be-
harrezko materiala jasoko da:
petoa eta aterkia. Ekimena
amaitu ostean, materiala nor-
berarentzako izango da.

“Mosaikoa egiteko bi ma-
terial erabiliko ditugu: kolo-
retako aterki eta petoak. Eta
noski, hirugarren osagaia gu
geu izango gara! Herritarrek!
Aurrez diseinatutako irudi
batzuk denon artean osatuta
ahaleginduko gara geure lana-

ri merezitako bultzada ema-
ten. Egunean bertan, beraz,
mosaikoa egiten lagunduko
diguten teknikoan esanari
kasu egitea nahikoa izango da
irudi ederrak sortzeko!”, anto-
latzaileen esanetan.

Izena emateko non

Horretarako mahaia jarriko du
aurrekoan bezala, asteburu
honetan, Usurbilgo Gure Esku
Dago taldeak:

■ Urriak 31, ostirala: 19:00-
21:00, Kaxkoan.

■ Azaroak 1, larunbata: 12:00-
14:00, Kaxkoan.

■ Azaroak 2, igandea: 12:00-
14:00, Kaxkoan.

Oharrak

■ Kaxkoan, eguraldiaren ara-
bera, Sutegi atarian edo Mikel
Laboa plazan.

■ Urriaren 25etik aurrera, Li-
zardi liburu dendan ere izena
eman ahalko da.

■ Prezioa: 5 euro.

Deitzailea: Gure Esku Dago.
gureeskudago.net

Etxean sagardoa egiteko ikastaroa, azaroaren 15ean Sutegin

Alkartasuna Usurbilgo
Baserritarren Koope-
ratibak antolatu duen
saioa, azaroaren 15ean egingo
da, 9:00-13:00 artean Sutegin,
Saizar sagardotegiko enolo-
go Fernando Vadillok eta Za-
pirain sagardotegiko kalitate
arduradun Egoitz Zapirainek
zuzenduta. Etxean sagardoa
modu artisaun egin ahal iza-

teko azalpenak emango dituz-
te. Ikastaroko prezioa, 10 euro.
Alkartasuna Kooperatibako
bazkideek doan.

Ikastarorako izena aurrez
eman behar da, Alkartasunako
943 361 114 telefono zenbaki-
ra deituta edo alkartasuna@
usurbil.com helbidera idatzita.
Bideotatik jaso dezakezue in-
formazio gehiago.



Izena eman behar da alde zurretik
943 361 114 telefono zenbakira deituz.

Euskararen Egunari loturiko bilera azaroaren 4an

Abenduaren 3an ospatuko den
Euskararen Egunari Usurbilgo
plazan lekua egin asmoz, he-
rri eragile talde bat bildu da.
Zerbait antolatu nahian dabil-
tza, baina zer egin, nola, honi
buruz hitz egiteko bilera deitu
dute, azaroaren 4an, 18:00etan
Potxoenean. Herriko talde na-
hiz herritar oro gonbitatua
dago hitzorduan parte hartzera.

'Elkarri on' kanpaina abiarazi du Atzegik Buruntzaldean

Elkarri on egiten diete pertsonak, adimen urritasuna izan edo ez. Harreman oro aberatsa izaten da eta Atzegikoen kasuan sine-tsita daude hori horrela izaten dela. Kanpaina hori asteartean aurkeztu zuten Lasarte-Orian, bertako eta Andoaingo alkatearekin. Buruntzaldeko udal-txeetan ere Atzegiko kideak lanean izan dira, eta hain zuzen ere esperientzia hori gizarteratu nahi izan dute kanpaina honekin bat eginez.

Dagoeneko 609 703 706 telefono zenbakira Atzegiko kide batekin ateratako argazkia bidaltzeko kanpaina zabalik da. Ohiko sare sozialen bitartez ere argazkia bidal daiteke. Atzegik aurtengo kanpainan pertsona hauek gizarteratu duten paperrari buruz hausnarketa berria gizarteratu nahi du, "Adimen urritasuna duten pertsonak zerbitzu-hartzaile edo gure laguntza edo elkartasuna jaso nahi dutenen modura ikusten ditugu beti. Gogoratzen al gara noizbait gizarterari eskaintzen dioten guztiaz, ematen dizkiguten baloreez?". Hausnarketa horretatik dator aurtengo kanpainarako lelo nagusia, "Elkarri on" delakoa. Gaur da eguna, esaterako, lan munduan txertatzen ari direla, eta kasu gehienetan esperientzia oso positiboa izaten ari da.

Selfie kanpaina

Alex Tetuan Atzegi elkarteko gurasoak hasiera eman zion eskualde mailako agerraldiari, Lasarte-Oriako udaletxeko arkupeetan egin zuten prentsaurrekoan, "Elkarri on kanpainarekin bi ideia nagusi gizarteratu nahi ditugu. Batetik, elkarrekin denok askoz hobe gaudela. Horrez gain, on adiera hainbat tresna pizteko erabiltzen dugu. Bada, beste modu batera ere gizartea martxan jarri nahi dugula



Aurreko ostiralean egin zen kanpainaren aurkezpena Lasarte-Orian.

'ELKARRI ON' KANPAINA

"Bi ideia nagusi gizarteratu nahi ditugu. Batetik, elkarrekin denok askoz hobe gaudela. Bestetik, 'on' adiera ere pizteko erabiltzen dugu. Gizartea martxan jarri nahi dugula adierazten ari gara lema honekin"

adierazten ari gara. Horregatik aurtengo kanpainan herritarrei euren eskuko telefonoekin argazkiak edo selfieak egitea eskatuko diegu. Bide batez, argazkiarekin batera, herritar bakoitzak gure seme alabekin bere esperientzia konta dezala. Lerro horien bitartez eurei zein balore positibo eskaintzen dien konta dezatela". Adierazpen horiek egin eta gero, Andoaingo alkate Ana Carrereri hitz egiteko aukera eskaini zion. Udaltxean azken urteetan Atzegiko kide Aihotz Albisu Lasa urnietarra Andoaingo udaletxean ari da, administrazio lanetan. Andoaingo alkateak poza agertu zuen ekimenarekin, "udale-

txean lanean dugu Aihotz eta oso esperientzia polita eta ona izaten ari da. Bere kasuan profesionala da, langilea da. Hau ez da Udalak egiten dion mesede bat. Berak bere lana egiten du, eta oso ondo gainera. Alai da gainera!". Udaletxean hainbat urtez ari da lanean eta alkateak adierazi zuenez, Udal mailan egiten duten balorazioa oso ona da, "Udal lansail guztiekin harremana du, eta bertako bat gehiago da guretzat". Integrazioaren adibide argi bat da Aihotzena.

"Giroa lasaitzea lortzen dute"

Pablo Barrio Lasarte-Oriako alkateak antzeko esperientziaren berri eman zuen, "gure kasua ere Andoaingoaren oso antzekoa da". Jon Roncero herrikidea lanean izan zuten udaletxean, "egunerokoan lisakar txikiak sortzen dira eta nire esperientziagatik langile hauek giroa gozatzea eta lasaitzea lortzen dute".

Kanpainarekin bat egiteko:
 ■ 609 703 706
 ■ www.atzegi.org

Lehen sorospenen inguruko ikastaroa abiatzear

Arrisku egoeren aurrean jokatzeko ikastaro aproposa, DYA-k lehen sorospenen inguruan antolatutakoa duena. Hiru asteko iraupena izango du, azaroaren 3tik 21era izango dira saioak, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara Lasarten, Garai-koetxea Landaberri Eskolan; Atsobakar 3an. Teoria eta praktika uztartuko dituen ikastaroan izen emateko deitu, 943 46 46 22 telefono zenbakira. Talde murriztua. Prezioa, 110 euro. Kopuru horren barne ikastarorako beharrezko materiala.



Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaro honetan. Izena emateko : 943 46 46 22.

“Aldarte ona sortzen da eta



Azaroaren 15ean Zubeldia Taldekoekin gozatzeko aukera izango du. Aitzakia horrekin, denboraldiaz eta txirrindularitzaz galdezka hurbildu gara Haimarregana.

Zubeldia Taldekoekin bazkaria duzu laster, azaroaren 15ean. Denboraldia amaitu duzun seinale.

Haimar Zubeldia. Aurten lehenxeago amaitu dut denboraldia, Espainiako Itzulian. Goiz hasi nintzelako ere bai. Urtarrilean hasi nuen denboraldia San Luisen, Argentinan. Horregatik atsedendia lehenxeago eman didate aurten. Orain atsedena hartzen ari gara eta pixkanaka hasiko gara martxan, datorren hilabetetik aurrera edo.

Tourrean zortzigarren izan zara. Beste behin Trek taldeko onena. Espainiako Itzulira ordean, ez zinen onenean iritsi. Hala ere, zapore onarekin amaituko zenuen denboraldia, ezta?

Denboraldiko muga altuena Tourrean ipinia genuen eta emaitza ona izan zen. Lan asko egin genuen Tourrari begira eta emaitza hor dago.

Aurretik arazo batzuk izan nituen, Euskal Herriko Itzulia-

HAIMAR ZUBELDIA

“Zapore onarekin amaitu dut denboraldia. Lan asko egin genuen Tourrari begira eta emaitza hor dago”

ren bueltan birus batekin egon nintzen baina soluzioa bilatu genion eta Tourrera garaiz iritsi nintzen eta ondo.

Donostiako Klasikan ere emaitza ona lortu genuen, sasoi onean nentorren Tourretik. Ondoren, saiatu nintzen Espainiako Itzulira ondo iristen, eta iritsi ondo iritsi nintzen, baina azkenean gorputzak “nahikoa da” esan zidan. Denbora asko zen maila horri eusten, baina muga batzuk ditugu denok eta beheraldia etorri zitzaidan Espainiako Itzulian. Beste arazo batzuk ere sortu zitzaizkidan eta horrega-

tik etxerako bidea hartu behar izan genuen. Baina hala ere, zapore onarekin amaitu dut denboraldia.

Akaso goiz da datorren denboraldian pentsatzeko. Baina egunotan 2015eko Tourraren ibilbidea eman da ezagutzera. Aztertzeo aukerarik izan al duzu? Zer itxura hartzen diozu?

Egon naiz bai Tourrari begira eta aurretik taldekideak Italian eman ditugu egun batzuk, hurrengo denboraldian pentsatzen. Bakoitzaren egutegia gaintik aztertu dugu talde zuzendaritzarekin.

Datorren urteko Tourrari dagokionez, ba bai, harritu nau. Normalean modu ziklikoan jokatzen du Tourreko antolakuntzak. Iaz erlojupekoak bazeuden baina kilometro gehiegikoak ez. Hurrengo urtean oso gutxi izango dira. Aurten harbideetako etapa jarri zuten

eta datorren urtean errepikatu egingo da. Horrek esan nahi du pozik daudela aurten izan duen oihartzunarekin.

Taldeko erlojuaren aurkako etapa berreskuratuko dute eta batez ere mendi asko egongo da 2015eko Tourrean. Gailurrean amaituko dira zortzi etapa. Hori ez da normala. Eskalataile garbiak direnak abantaila izango dutela iruditzen zait. A priori behintzat hala ematen du.

Eta Haimar Zubeldiaren ezauzgarrientzat egokia izango dela uste al duzu?

Bai, niri gustatu zait. Mendian ondo ibiltzen naiz eta erlojuaren aurka defendatzen naiz. Lehen aste hori inongo arazorik gabe salbatuko bagenu, goian egoteko aukerak izango genituzke.

Beti bezala, lehen astean tentsio handia izaten da eta gendien bat horri diot errespetua.

oso ondo pasatzen dugu”

Taldeak izen berdina eta egitura berdina mantenduko du, ezta?

Haimar Zubeldia. Bauke Mollema fitxatu dugu eta guretzat berme handiko txirrindularia da. Klasikoetarako eta baita Tourrerako ere. Lehen hamarren artean izan ohi da Tourrean, eta gaztea da oraindik. Progesio ona dakar. Fitxaje sendoa da. Bajak ere izan ditugu, Andy Schleck, Jens Voigt... Gainontzean, aldaketa gehiegirik ez da izango. Egitura mantentzen da eta taldean gazte asko ditugu. Gazte horiek badoz pixkanaka baina gutxi-naka paper garrantzitsuagoa hartzen hasi beharko dute.

Andy Schleck-ek agur esan du. Ez du zorte handirik izan azken hiru urteotan. Lagun handia galduko duzue tropelean, ezta?

Bai, hori da. Nik behintzat urteotan gertuko harremana izan dut berarekin eta izan ditudan lider guztien artean gertukoena izan da bera. Bizikletatik jaisterakoan bat gehiago zen. Alde horretatik harreman estua sortu da gure artean eta pena hartu dut.

Faktore asko izan dira, arazoak arazozen gainetik, eta azkenean uztea erabaki du. Pena da, talentu handiko mutila baita. Entrenamendu gutxiarekin maila izugarria hartzen zuen.

Jon Odriozolak kontinental mailako talde bat aterako du. Albiste ona, bereziki atzetik datozen txirrindulari gazteentzat. Poztuko zinen, noski.

Dударик gabe, guk egunero profesionalekin eta amateurekin entrenatzen dugu. Nik neuk bere garaian Euskaltelekin izan nuen profesionalek salto emateko aukera eta konturatua nintzen gazte jendea ilusioa galtzen hasia zela. Orain badirudi zerbait sortuko dela eta nahiko nuke zerbaiten hasiera



37 urterekin 24 itzuli handitan hartu du parte. Eta beste denboraldi baterako gogoz sumatu dugu.

AFIZIOA OFIZIO

“Sei urterekin edo hartu nuen parte San Esteban auzoko lasterketa batean. Afizioa ofizio bihurtu zen gero, baina beti esaten dut txirrindularitza profesionala uzten dudanean bizikletan ibiltzen jarraituko dudala”

izatea. Irakurri dudana gatik, hori da asmoa. Ez naiz egon gurekin entrenatzen duten amateurekin, baina uste dut albiste honek berriz martxan jartzeko gogoia piztuko diela.

Pena litzateke bestela. Euskal Herria beti izan da abangoardia eta erreferentzia txirrindularitzan.

Bere garaian, gure garaian hala zen, hemen zeuden eta hemen daude lasterketa garrantzitsuenak. Gaur egun ere hala da. Hutsune bat bagenuen Euskaltel desagertu zenetik eta zerbait egon behar du martxan, bestela zortzi hamar urtera hutsune handi bat topatuko dugu. Talde

hauek formazio lan bat ere egingen dute.

Aurtengoekin, guztira 24 itzuli handi osatu dituzu. Gutxi izango dira marka hori lortu dutenak eta profesionaletan jarraitzen dutenak. Zein da sekretua?

Lehenik eta behin ofizioa gustuko izatea. Bizitza osoa bizikleta gainean daramat. Sei urterekin edo hartu nuen parte San Esteban auzoko lasterketa batean. Afizioa ofizio bihurtu zen gero, baina beti esaten dut txirrindularitza profesionala uzten dudanean bizikletan ibiltzen jarraituko dudala. Gustuko dut eta nire bizitzaren parte da.

Familiak ere asko babesten nau. Momentuz alabek eta emazteak asko laguntzen didate. Beraien aldetik ez dut sekula kontrarik entzun. Eta esker-tzekoa da.

Azaroaren 15ean, Peña Zubeldiakoen bazkaria

Aginaga Sagardotegian. Txartela aurrez eskuratu beharko da Txiriboga tabernan, azaroaren 13a baino lehen. Prezioa: 27 euro.

Etxekoen babesaren “oso garrantzitsua da niretzat”

Etxekoek babestuta sentitzen zara.

Haimar Zubeldia. Eta hori niretzat oso garrantzitsua da. Azkenean egun asko pasatzen ditut etxetik kanpo, horregatik euren aldetik babes hori sentitzea oso garrantzitsua da niretzat.

Etxekoekin, lagunekin egoteko egunak dira hauek. Azaroaren 15ean egingo da Zubeldia taldearen bazkaria. Egun polita izango da zuretzat.

Beti aldarte ona sortzen da eta oso ondo pasatzen dugu. Eskertzekoa da. Urtean zehar etxe inguruan gutxi egoten naiz. Batzuk ikusten ditut Pirinioetan, baina denak juntatzea zaila da eta egun hori aprobetxatzen dut lagunekin egoteko eta urtean zehar izan ez ditugun berriketaldiak egiteko.

AITZAGA
ARTZABAL
BORDATXO
TXAPELDUN
TXIRIBOGA
TXIRRISTRA
XARMA

tipi tapa

usurbil

HILEKO LEHEN IGANDEAN
15:00AK ARTE

PINTXO BEREZIA
+ EDARIA 2€

URTEKO ARDOA, TXAKOLINA
SAGARDOA, ZURITOA EDO URA.

Eskuratu zure
Tipi-Tapa txartela
eta hasi
zigiluak biltzen!

1.SARIA:
150€
erosketa
balea.

2.SARIA:
Bi lagunentzako
afaria

Antolatzailea

hurbilag

Urbigo-Marketa eta Opatuen Elkartea

Babeslea



Usurbilgo Udala



EUSKAL HERRIA

Noiz: **AZAROAK 2, IGANDEA**

Mokaduen osagai nagusia:

PATATA



Ilazki Gaintza

Musikaz eta sare feminista bat osatzeko beharraz hitz egingo dut oraingoan. Duela hilabete batzuk nere herrian osatu den batukada feminista talde bateko partaidea naiz eta emakumez osatutako guneak sortzeak duen garrantziak hausnartzeko parada eman dit. Jaio, hazi eta bizi garen jendarte patriarkal eta kapitalista honetan, emakume eta gizonen arteko aukera desberdintasunak nabarmenak dira. Egoera honi pixkanaka aurre egin ahal izateko eta emakumeok gure burua ahalduntzeko, ezinbestekoa iruditzen zait emakumez osatutako taldeak sortzea: musika, literatura, autodefentsa nahiz bestelako gaien inguruan. Oraingoan, musikaren inguruko arituko naiz.

Azken finean, gune mistoetan -elkartzeko helburuak beste batzuk direnean ere beharrezkoak iruditzen zaizkidanak-, parte-hartzaileen artean sortzen diren harremanak oso bestelakoak dira. Besteen aurrean geure buruaz edo ideiez hitz egiteko orduan, muga gehiago azaleratzen dira -norberarenak eta jendartearenak-. Emakumez osatutako guneetan berriz, errazagoa da konfiantza edota sororitate hori lortzea.

Euskal Herrian batukada feministen sarea sortzen ari gara, adin guztietako emakumez osatutako taldeak martxan jartzeko helburuarekin. Musika jakitea ez da garrantzitsuena. Arrazoi nagusia, adin eta kultura desberdinetako emakumeak elkartu eta musika egitea da: mo-

“Sororitate” musikala



Usurbilgo Batukada Feminista taldeko kide da Ilazki Gaintza. Proyecto Kalho aldizkarian ere argitaratu zuen artikulu hau.

mentu horietan besterik ez bada ere, biberioak, erratzak, irakurgaiak, ikasketak eta lanak ahaztu, eta goza dezaten.

Saioei hasiera emateko, lehendabizi erlaxatzeko minutu batzuk hartzen dira norbera momentu horretan nola sentitzen den pentsatzeko. Era honetan konfiantza espazio hori sortzen hasten da. Emakume bakoitzaren gogoein eta perkusioak sortzen dituen bibrazioekin, saioko bi orduak sekulako indar eta ahalduntze mailarekin amaitzen dira. Boteretsuak sentitzen dira bertaratutako emakumeak. Saio amaieran, berriz ere, minutu batzuk hartzen dira norbera nola sentitzen den hausnartzeko. Gehienetan, nekea, kezka edo urduritasuna desagertu egiten dira eta egunarekin jarraitzeko gogoz eta indartsu sentitzen dira. Bi ordu horietan, emakumeek instrumentua ondo edo gaizki

jotzeko beldurra galtzen dute, eta gozaten dute; besteen aurrean ondo geratzeaz ahazten dira, eta baita politak edo zatarrak diren, dieta mantetzen ari diren edo ez eta beste mila betebeharez. Hori guztia ahaztu eta besterik gabe, eurak diren bezala azaltzen dira. Ez nuen uste batukada ikastaro batek hainbeste gauza ikustera eramango ninduenik, ezta indar edo botere hori sentituko nuenik ere, baina hala da. Entsegu bakoitzean sentimendu horiek berresten ditut besteekin hitz egin eta eurek ere sentsazio berbera dutela ikusten dudanean. Izugarria da emakume artean egotea, gure artean epaitu gabe gozatzea eta gu geu izatea.

Modu honetan, egunerokotasunean eta gure borroketan elkarri lagunduz, indartsuagoak sentitzen gara. Horregatik, emakumeentzat

